



NAFARROAKO KIROL ENTITATEEN OINARRIZKO ZERGA GIDA

Nafarroako Kirolaren eta
Gazteriaren Institutua



Instituto Navarro de
Deporte y Juventud

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Indizea

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (IFZ)

5

5–NAFARROAKO KIROL ENTITATEEK IFZ BEHAR DUTE?

SOZietateen GAINeko ZERGA

6

6–NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK SOZietateen GAINeko ZERGAREN ZERGADUNAK DIRA?

6–KONTABILITATEA ERAMATERA BEHARTUTA DAUDE?

8–SOZietateen GAINeko ZERGAREN AITORPENA AURKEZTU BEHARRA

8–PARTEZ SALBUETSIK DAUDEN ENTITATEEN ARAUBIDEA

9–ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEA SOZietateen GAINeko ZERGAN

9–ESPEZIALITATEAK ZERGA OINARRIAK EZARTZEKO ENTITATEEI 10/1996 AGINDU FORALA (KIROL FEDERAZIOAK)

10–PARTEZ SALBUETSIK DAUDEN ENTITATEEN ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEKO ESPEZIALITATEAK

11–KARGA TASA

BALIO ERANTSIAREN GAINeko ZERGA

12

12–BEZaren AITORPENA EGIN BEHAR DUTE?

12–ERAGIKETA SALBUETSI GABE ETA LOTUAK

13–ERAGIKETA SALBUETSI GABEAK ETA LOTUAK

14–BERTZELAKO ERAGIKETAK

14–JASANDAKO BEZaren KUOTEN KENKARIA

15–TASAK

16–BEZaren AITORPEN-LIKIDAZIOEN AURKEZPENA

PFEZAREN INGURUKO ZERGA BETEBEHARRAK

17

17–NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK BEHARTURIK DAUDE ATXIKIPENA EGITERA BEREN KIROLARI, ENTRENATZAILE, MONITORE, FISIOTERAPEUTA, MEDIKU ETA, ORO HAR, KIROLEZ KANPOKO LANGILEEI ERRENTAK ORDAINTZEN DIZKIETELARIK?

17–KIROL ENTITATEAK ATXIKIPENA EGITERA BEHARTURIK DAUDE ARBITROEI, LAGUNTZAILEEI ETA KIROL EPAILEEI ERRENTAK ORDAINTZEN DIZKIETELARIK?

18–KIROL ENTITATEEK ATXIKI BEHAR DIETE KIROL SARIETATIK KIROL KONPETIZIETAKO KIROLARIEI ?

18–BEHARKIZUN FORMALAK, ATXIKIPENA BEHAR DUTEN LAN-ERRENTAK ORDAINTZEN DIRELARIK

19–APLIKATZEKOAK DIRA AITZINEKO BETEBEHARRAK, EGUNEAN EDO ASTEAN ORDU GUTXI BATZUETAN EMATEN DIREN ZERBITZUAK DIRELARIK? ETA ZER ONDORIO IZANEN LUKETE ORDAINKETA HORIEK GIZARTE SEGURANTZAREN AITZINEAN?

20–PFEZ-REN ONARPENAREN BETEBEHARRAK

BERTZE BETEBEHAR BATZUK

21

21–NAFARROAKO KIROL ENTITATEEK AURKEZTU BEHAR DUTE HIRUGARREN PERTSONEKIN EGINDAKO ERAGIKETEI BURUZKO AITORPENAREN EREDUA?

21–182 EREDUAREN AURKEZPENA “Jasotako ekarpenen eta dohaintzen eta egindako erabileren informazio aitorpena”

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINeko ZERGA (JEZ)

22


22–NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK LOTURIK DAUDE JARDUERA EKONOMIKOEN GAINeko ZERGARI EGIAZKI EGITEN DUTEN JARDUERAREN ARABERA?

JOKOAREN GAINeko TRIBUTUAK: ZOZKETAK

23

KIROL BABESLETZA

24



NAFARROAKO KIROL ENTITATEEN OINARRIZKO ZERGA GIDA (*)


(*) Gida honi dagokionez:

- **Nafarroako kirol entitateak** dira irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuak, berezko nortasun juridikoa dutenak eta helbidea Nafarroan; haien xedea kirol jardueren sustapena eta praktika da eta [Nafarroako Kirolari buruzko Legeak](#) arautuak daude; honako hauek: **kirol klubak, kirol federazioak, Nafarroako kirol klub filialak eta kirola sustatzeko enteak.**

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (IFZ)

NAFARROAKO KIROL ENTITATEEK IFZ BEHAR DUTE?

- ✓ **BAI.** Tributu harremanetan edo tributu gaitan eragina duten harremanetan titularrak izanen diren pertsona juridikoek eskatu beharko diote Nafarroako Zerga Ogasunari identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) esleitzeko.



SOZETATEEN GAINEN ZERGA

NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK SOZETATEEN GAINEN ZERGAREN ZERGADUNAK DIRA?

- ✓ **BAI.** Nafarroako kirol entitateak, berezko nortasun juridikoa duten pertsona juridikoak diren aldetik, sozietateen gaineko zergaren zergadunak dira. ([Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28koa 26/2016 Foru Legearen 10.1 artikulua](#)).

KONTABILITATEA ERAMATERA BEHARTUTA DAUDE?

- ✓ **BAI.** Sozietateen gaineko zergaren zergadunek beren kontabilitatea eraman behar dute, Merkataritza Kodean zer dagoen aurreikusia edo beren arauetan zer dagoen ezarria, horren arabera.

Nolanahi ere, zerga honen zergadunek errenta salbuetsiei eta salbuetsi gabekoei dagozkien diru-sarrera eta gastuak zein diren jakiteko maneran eramanen dute beren kontabilitatea, zerga ordaintzen badute partez salbuetsiak dauden entitateen arabidean.

Kontabilitate arloan kontuan hartu beharko da Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpena, irabazi-asmorik gabeko entitate txiki eta ertainen Kontabilitate Plana onesten duena.

Nafarroako Kirol Federazioek eramanen dute beraien kontabilitatea Nafarroako Kirol Federazioen Kontabilitate Plangintza Orokorraren arauen arabera. [Agindu Forala 56/2018, abuztuaren 27koa](#).



Kirol Federazioak

2019an hasita, Nafarroako kirol federazioek beren kontabilitatea eramanen dute Kontabilitate Plan Orokorra Nafarroako kirol federazioei egokitzeko [abenduaren 12ko 56/2018 Foru Aginduaren](#) bidez onetsitako arauei jarraikiz (91/2003 Foru Agindua indargabetu baitzuen).

Kirol federazioei aplikagarri zaie Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea ezartzen duen 10/1996 Foru Legea, horrela agintzen baitu Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen 58. artikulua.

Lege xedapenez 10/1996 Foru Legea aplikatzeak salbuesten ditu aplikazio hori eskatzetik, nahiz eta, horretarako, arauan berean ezarritako baldintzak bete behar dituzten.

Bere 11. artikuluan jasutzen da zein diren 10/1996 Foru Legea kontabilitatearen, auditoretzaren eta aurrekontuen arloetan aplikatu behar duten subjektu pasiboen betebeharrak.

56/2018 Foru Aginduarekin bat erran bezala kontabilitatea eramateaz gain, hona hemen zein diren nabarmendu beharreko betebeharrak **nagusiak**:

- **Inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua** urtero egitea.
- Entitatearen jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa azaltzen dituen **memoria** urtero egitea, barne direla **finantzaketa taula eta Fundazioaren helburuen betetze maila. Ondarea nola aldatu den** eta **gobernu, zuzendaritza eta ordezkari organoetan zer aldaketa izan diren ere zehaztuko** da memorian.
- Federazioko gobernu organoak aitzin urteko **aurrekontuaren likidazioa** egin beharko du.

Aurreko hiru puntuetan bildutako dokumentuak **Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira hurrengo ekitaldiko lehen sei hilabeteetan**, salbu eta egoera-balantzea eta emaitza-kontua, horiek sozietateen gaineko zergari dagokion aitortopenean aurkeztuko baitira.

- **Hurrengo urteko aurrekontua** prestatuko da eta Ekonomia eta Ogasun Departamentura igorriko, azalpen memoria batekin batera, ekitaldi bakoitzeko urriaren 1etik urtarrilaren 31ra bitarte.

Azpitarratu behar da aitzineko betebeharrak eta 10/1996 Foru Legeak ezartzen dituen gainerakoak ez betetzeak ekarriko duela bertan ezartzen den tributu araubidea aplikatu ezina.

SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAREN AITORPENA AURKEZTU BEHARRA

Sozietateen gaineko zerga Nafarroako Ogasunari ordaintzen dioten zergadunak beharturik egonen dira zerga horrengatik aitorpen bat aurkeztera, [S90](#) ereduakoa. Horretarako, dagozkien datu guztiak, aitorpenean eskaturikoak, emanen dituzte, bai eta erantsi ere foru lege honetan edo bera garatzeko erregelamenduan espresuki ezartzen diren dokumentu eta frogagiriak.

Aitorpena Interneten bidez aurkeztu beharko da nahitaez.

Zergaldia burutu ondoko borzgarren hilabetearen 1. egunean hasiko da aitorpena aurkezteko epea, eta zergaldia burutu ondoko zazpigarren hilabetearen 25. egunean bukatuko.

Kasu hauetan aurkitzen dira **Kirol Federazioak**, hauek aurkeztu behar dute **kasu guztietan Sozietate Gaineko Zerga**. Hori dela eta, ezin dute ezarri hurrengo atalean aipatzen den kasua. Kasu hauetan bakarrik kontuan izanen dira subjeto pasiboak, Soziedadeen Gaineko Zerga baldin badira parzialki salbuetsia eta hor ezarri behar da erregimen berezia.

PARTEZ SALBUETSIK DAUDEN ENTITATEEN ARAUBIDEA

Nafarroako kirol entitateak, irabazi asmorik gabeko entitateak diren aldetik, zergak ordainduko dituzte, **orokorrean, partez salbuetsiak dauden entitateen araubidean**. Hala ere, araubidea ez zaie kirol klubei aplikatuko, ez eta kirol lehiaketa ofizial eta profesionaletan parte hartzen duten irabazi asmorik gabeko beste entitate eta erakundeei ere.

Partez salbuetsiak dauden entitateek ondoko baldintza hauetarikoren bat betetzen dutelarik baizik ez dute S90 ereduak aitorpena aurkeztu beharko.

- a) Beren diru-sarrerak 100.000 euro baino gehiagokoak izatea urtean.
- b) Salbuetsi gabeko errentei dagozkien diru-sarrerak, atxikipenik ez dutenak, 25.000 euro baino gehiagokoak izatea urtean (diru-sarrera kirol babesletzako kontratuetatik baizik etortzen ez bada ere)

ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEA SOZietateen GAINeko ZERGAN

Orokorrean, zuzeneko zenbatespenaren araubidean zerga-oinarria **kontabilitate emaitza** egokituz kalkulatu da, foru lege honetan ezarritako agindua aplikatuz.

Kontabilitate emaitza zehazteko, zerga administrazioak aplikatuko ditu Merkataritza Kodean aurreikusitako arauak, baita hura zehaztearekin lotutako gainerako legeetan eta aipatutako arauak garatzeko ematen diren gainerako xedapenetan aurreikusitakoak ere.

Beraz, zerga-oinarria zehazteko kontabilitate emaitzatik abiatu behar da, hau da, diru-sarrerei gastuak kentzetik, eta jarraian aplikatuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak ezartzen dituen zerga doikuntzak.

ESPEZIALITATEAK ZERGA OINARRIAK EZARTZEKO ENTITATEEI 10/1996 AGINDU FORALA (KIROL FEDERAZIOAK)

10/1996 Foru Legea jartzen du salbuetsia, ondoko errentak:

- **Kirol aktibitate arruntak** egiten direnean eta helburuak moduan. **Esplotazio ekonomikoa garatzen denean edo hortik aparte.**
- **Erosketak edo tramisioren ondoren**, edozein titulu, ongia edo eskubidea lortzen direnean. Disoluzio edo entitatearen likidazioa lortzen direnean barne.
- **Patrimonio moduan lortutakoak eta hirugarren bati emandakoak**, dibidendu eta partizipazio sozietateen irabazien, interesak, canon edo alokairuak.

Gainerako kasuetan ez daude salbuetsiak eta hasu hauetan zor ordainketak egin behar dira.

Hala ere, Ogasun eta Ekonomia Departamentuak egin ditzake salbuetsiak errenta hoiek baldin badute laguntzeko ustiapen ekonomiko salbuetsia edo berzeko aktibitatean. Hortarako Osasun eta Ekonomia Departamentuari komunikatu egin behar zaio.

PARTEZ SALBUETSIK DAUDEN ENTITATEEN ZERGA-OINARRIA ZEHAZTEKO ESPEZIALITATEAK

Partez salbuetsiak dauden entitateen araubidearen ezaugarria da entitate hauek eskuratzen duten errenta mota baten salbuespena.

a) Salbuetsi gabeko errentak

Salbuespenak ez die eraginen jarduera ekonomikoen etekinei, ezta ondarearen ondoriozko errentei ere.

Nafarroako kirol entitateen jarduera salbuetsi gabeko jarduera ekonomikotzat hartzen da.

Jarduera ekonomikotzat hartuko da norberaren kontura antolatzea produkzio baliabideak eta giza baliabideak, edo bietarik bat, helburu izanik ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan esku hartzea.

Elkarteko edozein aktibitatea, elkarteko helburuak betetzeko barne, “aktibitate ekonomikoa” izaten da. Produkzio bitartekoak, giza baliabideak, edo besteren bat, kasu guztietan izanen da “aktibitate ekonomikoa”, kobratu edo ez kobratu bere bazkideei eta kanpoko lagunei (elkarteko aldizkako kuota arrunta edo aparteko kuota barne).

Adibide moduan, instalakuntzen erabilpena (berek edo ez) enpleguak izatea edo estruktura txiki bat izatea; kasu guztietan produkzioa bitartekoak edo giza baliabideak izaten dira.

Ez dira salbuetsizat hartzen bazkideek edo elkartekideek entitatearen zerbitzuez baliatzeagatik ordaintzen dituzten errentak, txarteldegiko diru-sarrerak, entitateko kirolariei kobratutako zenbatekoak, publizitateko eta babesletzako kontratuak diru-sarrerak, ostatu eta tabernetako diru-sarrerak, kirol materialaren salmentakoak, jokalarien eskualdaketen edo gisakoen ondoriozkoak, prestakuntza eta sustapen eskubideengatik kalte-ordainak, filialtasun kontratu edo hitzarmenak edo gisakoak.

Ondarearen ondoriozko errentak. Nafarroako kirol entitateen ondaretzat hartu behar da haien titulartasuneko ondasun eta eskubideak, bere xede edo helburu berariazkoari atxikirik egon edo ez. Errenta kategoria honen barrenean sartzen da etortzen dena entitateen jardueren edo ustiapen ekonomikoei atxiki gabeko higiezin errentamendutik, edo finantza-aktiboen –bertzeak bertze, baloreen zorroen– etekinetatik.

b) Errenta salbuetsiak

- Elkartekideek, laguntzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak, baldin eta jarduera ekonomiko baten ondoriozko prestazio bat jasotzeko eskubideari ez badagozkie. Erran nahi baita, dohaintzat hartzen diren kuotak baizik ez daude salbuetsirik.

- Dirua irabazteko asmoz egindako eskurapenen edo eskualdaketen ondoriozkoak (erran nahi baita, dohaintzak), betiere batzuk eta bertzeak xede edo helburu berariazkoa betetzeko erdietsi edo gauzatu badira. Testuinguru honetan, zehaztu beharra dago ez daudela salbuetsirik udalek, Nafarroako Gobernuak edo kirol federazioek ematen dituzten diru-laguntzak, salbuetsirik ez dagoen kirol jarduera finantzatzen dutelako.
- Berariazko xede edo helburua betetzeari atxikitako ondare-elementuen kostu bidezko eskualdaketa agerian geratutakoak, eskualdaketa horien zenbatekoa erabiltzen denean inbertsio berriak egiteko ibilgetu materialaren elementuetan, ukiezinekoan edo higiezin inbertsioetan, lotura badute berariazko xedearekin edo helburuarekin.

Ez dira zerga ondorioetarako kengarriak diren gastutzat hartuko errenta salbuetsiei baizik egosten ahal ez zaizkien gastuak. Salbuetsita ez dauden errentei hein batean egotz dakizkiekeen gastuen kenkaria izanen da jarduera ekonomikoek ekitaldian eta entitatearen diru-sarrera guztiei dagokienez salbuespenik ez duten errentak izan dituzten gainerako jardueren ekitaldian eskuratutako diru-sarreraren portzentajea.

KARGA TASA

Partez salbuetsiak dauden entitateen zerga-tasa **%23** izanen da.

Nolanahi ere, mikroenpresa izanez gero **%19** izanen da zerga-tasa.

Gainerako entitateei tasa hauek aplikatuko zaizkie:

- Tasa orokorra: **%28**
%23, enpresa txikiendako.
- Karga-tasa **%19** izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikiendako.

Enpresa txikitzat hartuko dira jarduera ekonomikoa eramaten dutenak, aitzin-aitzineko zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbia **hamar milioi** euro baino gutiago denean.

Mikroenpresatzat joko dira enpresa txikiak, aitzin-aitzineko zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbia **milioi bat euro** edo gutiago denean.


Kirol Federazioak

Betetzen badira zerga sistemaren baldintzak 10/1996, Foru Legearena, zerga ordainketa izanen da % 10a. Kontuan hartu behar dugu 26/2016 Foru Agindua, 51.4 artikuluari dagokionez, Sozietate Gaineko Zerga.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA



BEZaren AITORPENA EGIN BEHAR DUTE?

Oro har,  **BAI.** Nafarroako kirol entitateak BEZaren subjektu pasiboak dira.

Kirol tadeek enpresa moduan aritzen direnean, dokumentu honetan agertzen denaren arabera sujetu pasiboak izanen dira eta BEZA zerga ordaindu behar dituzte.

Hala ere kirol entitateek kirol jarduera egiten dutenean eta dohainik egiten dutenean, kaus hauetan ez dute BEZA ordaindu behar eta ez dira aritzen enpresa moduan. Kasu hauetan azkeneko kontsumitzaile moduan ariko dira.

Kirol jarduerak kobratu gabe egiten dituztenean eta beste batzuk kobratzen dituztenean, BEZA zerga ordaindu behar da gida honetan azlatzn den moduan.

ERAGIKETA SALBUETSI GABE ETA LOTUAK

BEZa jasanarazi behar da eragiketa salbuetsi gabe eta lotuengatik.

Eragiketa salbuetsi gabe eta lotuak dira **ondasun-emate gisa** definitzen diren eragiketak.

Kirol klubek egiten dituzten zerbitzu hauek ere **salbuetsi gabe eta lotuak** dira, ez baitute ikustekorik pertsona fisikoak kirolean aritzearekin:

1. Bazkide eta elkartekideen diru-sarrerak eta txarteldegiko diru-sarrerak, bi kasuetan, kirol gertakari edo norgehiagokak ikustearen ordain direnean.
2. Kirol ikuskizunak ordaindu behar dituzte. Noiz da kirol ikuskizuna? Kirol ikuskizua da ebento, lahiaketa edo gainerako kirol jarduera taldeka edo kirol taldeetako kirolariak aritzen direnean eta horren truke dirua jasotzen dutenean.

3. **Kirol ikuskizunean** zerga ordainketa izanen da orokorrean %21 a , **afizionatu moduan** egiten denean , kaus hauetan %10a zerga ordainduko da.
Nola ulertu behar da kirol ikuskizun afizionatua ?. Holako ikuskizunak izanen dira kirolari ez-profesionalek egindako ikuskizunak. Zergen Orokorren Zuzendaritza Orokorrari egindako Kontsulta tolestea. 1297/1993, 1994ko azaroaren 29koa)
4. Publizitatearen eta patrozinioaren diru-sarrerak.
Babesletza kontratuetan (publizitate kontratutzat hartzen dira) babesleak zenbateko baten ekarpena egiten dio entitate babestuari, eta horrek (Nafarroako kirol entitateak) lagatzen dio babesleari publizitatea paratzeko eskubidea bere instalazioetako iragarki paneletan, edo babeslearen izena edo logoa paratzeko klub babestuak entrenatzeko edo jokatzeko erabiltzen duen arropan.
5. Babesletza kontraturik tartean izan gabe ere, publizitate kontratuetatik heldu diren diru-sarrerak: panelen errentamendua, kamisetena eta abarrena.
6. Tabernen diru-sarrerak eta kirol materialaren salmenta.
7. Ostatu edo tabernetako diru-sarrerak eta kirol materialaren salmentetakoak. Baita ostatuaren errentamendukoak ere. Honelakoetan, entitateak halako lokal bat ematen dio errentan hirugarren bati, hura jarduera horretan ari dadin bere kontura: kirol entitateak errentamenduagatik kobratzen dituen kuotak salbuetsi gabe eta lotuak daude.
8. Honako hauen ondoriozkoak: filialtasun kontratu edo hitzarmen edo gisakoak, jokalarien eskualdaketak eta prestakuntza edo sustapen eskubideak.
9. Kirol instalazioen alokairuak, adibidez, kirol ikuskizunak, musika ebentoa edo enpresen jaiak direan,... Kasu guztietan salbuetsi gabe eta lotuak daude .

ERAGIKETA SALBUETSI GABEAK ETA LOTUAK

Ez da BEZa jasanarazi behar eragiketa salbuetsi gabe eta lotuengatik.

- 1.- Lotuak eta salbuetsiak daude kirol entitateek beren bazkideei egiten dizkieten zerbitzuak, betiere eragiketa horien onuradunengandik ez badute inolako ordainik jasotzen, beren estatutuetan finkaturiko kotizazioez landa.

Hartara, salbuetsiak egonen dira aldizkako kuotak (hilekoak, hiruhilekoak, seihilekoak, urtekoak eta abar), alegia, entitate bateko bazkideei kobratzen zaizkien bertako instalazioak (elkartearen lokala, aldagelak, joko zelaiak, igerilekuak eta abar) erabiltzeko eskubidearen truke.

- 2.- Eragiketa lotuak eta salbuetsiak dira, orobat, kirol entitateek kirolean edo gorputz hezkuntzan aritzen diren pertsona fisikoei ematen dizkieten zerbitzuak. Salbuespena ez da kirol ikuskizunetara hedatzen, tasa murriztura lotuak izanen baitira izaera profesionalik ez badute.
Beraz, salbuetsiak egonen dira kirol entitateek ematen dituzten zerbitzuengatik beren kirolariei kobratzen dizkieten zenbatekoak.
- 3.- Kirol ikuskizuntzat hartzen da kirol esparruko gertakari, norgehiagoka, erakustaldi eta bertzelako jarduerak egitea kirol entitateetan bazkideturiko talde eta kirolariek.
- 4.- Zozketek eta jokuek ez dute BEZA ordaindu behar.

BERTZELAKO ERAGIKETAK

- 1.- Ordainik gabe bildutako diru-laguntzak: lotu gabeak.
 - 2.- Interes orokorreko **jardueretan lankidetzan aritzeko hitzarmenak**: irabazi asmorik gabeko kirol entitateek sinaturiko kontratuak, 30/1994 Legeak arautuak, laguntzailearen parte-hartzea zabaltzeko irabazi asmorik gabeko entitateek hartzen duten konpromisoa ezartzen dutenak, 49/2002 Legearen 25. artikuluan arautzen diren lankidetzak hitzarmenen esparruan. Bildutako laguntza ekonomikoa: lotu gabea.
 - 3.- Arbitraien zerbitzua: argitu behar da:
 - Kirol entitateek edo federazioek arbitraien zerbitzua egiten badute ez daude ordaindu behar.
 - Pertsona fisiko batek egiten badizkie arbitraien zerbitzuak kirol entitateei edo Federazioei BEZA ez du ordaindu behar. Pertsona horrek bere kabuz egiten baditu zerbitzu horiek, orduan ez daude salbuetsi eta zerga ordaindu behako du %21a.
 - 4.- Kirol monitoreak edo irakasleak ematen badizkiete zenbait ikastaro (pilatesak, tenisa, igeriketa...) kirol entitateei BEZA atxikitzen zaie. Pertsona fisikoa edo enpresa moduan ematen eta laboral kontratuaren bidez egiten direnean.
- Arbitroendako ordainketak: BEZari lotu gabeko prestazioak dira eta % 21a ordainduko da.

JASANDAKO BEZaren KUOTEN KENKARIA

Kirol entitateek beren hornitzaileak ematen dizkieten fakturretan agertzen den jasandako BEZaren kuoten kenkaria egin dezakete? Haien kenkaria osoki edo partez egin dezakete?

Galdera honen erantzuna zenbait inguruabarren baitan dago.

Aztertu beharra dago zer jarduera mota egiten duen kirol entitateak:

- a) Egiten diren jarduera guztiak zergatik salbuetsi gabe eta hari lotuak baleude (erran nahi baita, jarduera guztietan BEZa jasanarazten bada), kengarriak lirateke hornitzaileek egindako fakturen artean jarduerarekin ikusteko dutenetan jasanarazitako BEZaren kuota guztiak, halako moldez non haren aitortpen-likidazioak BEZ jasanarazia izanen bailuke jarduera guztiengatik, eta jasandako BEZa, hartutako fakturengatik.
- b) Hala ere, aitzineko ataletan azaldutakoaren arabera, ohikoena izanen da kirol entitateak egiten dituen jarduera batzuegatik BEZa jasanarazi behar ez izatea (salbuetsiak direlako) eta bertze batzuegatik BEZa jasanarazi behar izatea (salbuetsi gabekoak direlako).

Honela denean kirol entitateak ezin izanen du jasandako BEZaren kuoten zenbateko osoaren kenkaria izan, eta orokorrean aplikatzekoa izanen da hainbanaketaren erregela: subjektu pasiboak izan dezakeen kenkaria da jasandako kuoten portzentaje bat, zehazten dena ondoko zatikiaren emaitza den koizientea bider 100 eginez, goitik borobildua:

- Zenbakitzailea: kenkarirako eskubidea sorrarazten duten eragiketen bolumen osoa (eragiketa salbuetsi gabeak).
- Izendatzailea: kenkarirako eskubidea izanik (eragiketa salbuetsi gabeak) eta kenkarirako eskubiderik gaberik (eragiketa salbuetsiak) egindako eragiketen bolumen osoa.

Bertzenaz, **hainbanaketa berezia** aplika liteke, bakar-bakarrik eragiketa salbuetsi gabeekin ikusteko duten erosketen BEZaren kuoten kenkaria osorik izanik, eta eragiketa salbuetsiekin ikusteko dutenen kenkaria batere egin gabe.

TASAK

Orokorrean, kirol klubek eta kirol elkarteek, BEZagatik, %21eko tasa aplikatuko diete beren eragiketei, salbu eta bazkideen abonamenduen eta sarreren kasuan, **amateur mailako** kirol ikuskizunetara joateko eskubidea baizik ematen ez dutenetan, orduan %10ekoa izanen baita aplikatu beharreko tasa.

Jakiteko zer nolako BEZA ezarri behar zaio, argitu behar dugu zer da Kirol ekitaldia ez profesionala. Kirol ekitaldia ez profesionala izanen da kirolari afizionaltuek bakarrik parte hartzen dutenean. Legea ezarritik, kirolari ez profesionalak parte hartzen dutela.

Zer da kirolari profesionala izatea? 1006/1985 Errege Dekretuan, I. artikuluan, aipatzen da noiz izaten den kirolari profesionala. Hori dela eta, izanen dira kirolari profesionalak kirol talde edo entitate baten barruan, borontatez, kirola egiten denean eta horren truke soldatu bat jasotzen dutenengan. Soldata hori gainditu behar ditu kirol praktikaren gastuak


Hori dela eta, BEZaren % 10a ezarriko zaio kirol ekitaldiari kirolari afizionaltuek parte hartzen dutelarik . Kirol ekitaldia afizionatu edo ez profesionala. Gainerako kasuetan ezarriko zaie %21a.

BEZaren AITORPEN-LIKIDAZIOEN AURKEZPENA

Aitzinekoarekin bat, kirol entitateek aurkeztu behar dituzte BEZagatik dagozkien aitorpen-likidazioak, [F69 eredukoak](#). Horren ondoriozko zenbatekoen sarrerak [713 ordainketa-gutunaren](#) bitartez egingen dira.

Orokorrean, likidazioaldiak bat egiten du hiruhileko naturalarekin, eta aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko da kasuan kasuko hiruhilekoaren ondoko hilabetearen lehen 20 egunen barnean, salbu eta bigarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkienak, horiek aurkezteko denbora abuztuaren 5a eta urtarrilaren 31 arte luzatuko baita, hurrenez hurren. Hala ere, likidazioaldiak bat egingen du hilabete naturalarekin, BEZaren Erregelamendua onesten duen 86/1993 Foru Dekretuaren 62.3 artikuluan aurreikusten diren kasuetan.

BEZaren aitorpen-likidazioak aurkeztu beharretik **bakar-bakarrik** daude salbuetsirik subjektu pasiboak, baldin eta egiten dituzten eragiketak BEZari buruzko Foru Legearen 17. eta 23. artikuluetakoak badira. Beraz, babesletza publizitarioko zerbitzuak (salbuetsi gabeak) egiten dituzten kirol entitateak beharturik egonen dira dagozkien aitorpen-likidazioak aurkeztera.



PFEZAREN INGURUKO ZERGA BETEBEHARRAK

PFEZak pertsona fisikoen errenta zergapetzen duenez, kirol entitateak ez daude zerga honi loturik.

Hala ere, zerga betebeharrak sorta bat bete beharko dute PFEZari dagokionez.

ATXIKIPENA EGITEKO ETA INFORMAZIOA EMATEKO BEHARKIZUNAK

NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK BEHARTURIK DAUDE ATXIKIPENA EGITERA BEREN KIROLARI, ENTRENATZAILE, MONITORE, FISIOTERAPEUTA, MEDIKU ETA, ORO HAR, KIROLEZ KANPOKO LANGILEEI ERRENTAK ORDAINTZEN DIZKINETELARIK?

✓ **BAI.** Pertsona horiek biltzen dituzten errentak, orokorrean, **lan-etekintzat** hartu behar dira eta atxikipena egin behar zaie. Ulertzen da pertsona horiek kirol entitatearen antolakuntzapean eta haren menean egiten dutela jarduera.

Fisioterapeuta eta medikuen jarduera, konparaziorako, **beren kontura egiten bada, erran nahi baita, kirol entitatearen antolaketatik kanpora**, pertsona horiei ordaindutako errentak **jarduera profesionalen** etekintzat hartuko dira, eta atxikipena egin beharko zaie, zein ere den ordaintzen den zenbatekoa; atxikipen tasa %15 izanen da.

KIROL ENTITATEAK ATXIKIPENA EGITERA BEHARTURIK DAUDE ARBITROEI, LAGUNTZAILEEI ETA KIROL EPAILEEI ERRENTAK ORDAINTZEN DIZKINETELARIK?

✓ **BAI.** Arbitroen eta kirol epaileen etekinak, PFEZari dagokionez, lan-etekintzat jotzen dira.



KIROL ENTITATEEK ATXIKI BEHAR DIETE KIROL SARIETATIK KIROL KONPETIZIETAKO KIROLARIEI ?

Kasu hauetan bi egoera desberdin kontuan izan behar ditugu:

- **Kirol aktibitatea edo lehiaketa profesionala denean (kirol profesionala)**

Kasu honetan kontuan izan behar dugu kirolaria **aktibitate profesionala** moduan aritzen denean. Kasu hauetan sariak aktibitate profesionalaren errendimendua izanen da.

Kasu hauetan atxikia %15a izanen da.

Lehiaketa antolatzen duen kirol entitateak ikusi beharko du kirolaria non kokatu, ze epigrafean Ekonomia-Jardueren Gaineko Zergan (Ekonomia Jardueren Gaineko Zerga). Hori dela eta, pentsatu behar dugu partaidetza dela bere jarduera profesionaleren barruan

- **Lehiaketaren partaidetzan ez bada egiten aktibitate profesional moduan (kirol profesionala)**

Kasu hauetan, ezarri behar zaie oraingo legea, sarien zergari dagokienez.

2016ko urtarrilaren 1etik arurrera atxiki behar zaizkie % 19a.

Hala ere, saria ez bada ailegatzen 300,00 euroetara, legediak dio ez dela atxikipena egin behar derrigorrez.

BEHARKIZUN FORMALAK, ATXIKIPENA BEHAR DUTEN LAN-ERRENTAK ORDAINTZEN DIRELARIK

Aplikatzeko atxikipen tasa: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz erabakiko da.

Eredu hauek erabiliko dira zerga betebeharr horiek betetzeko:

- **Atxikipenak:** [715 ereduko ordainketa-gutuna](#). Hiruhilekoko PFEZko atxikipenak. Lana, lanbidekoak, nekazaritzakoak eta sariak.
- **Atxikipenen urteko aitorpena.** [190 eredua](#). Errenta hartzaileen informazio aitorpena, jasotako errenten eta egindako atxikipenen gainekoa. Urtero aurkeztuko da, urtarrilaren 1etik otsailaren 5era.

Arestian aipaturiko profesionaleri (fisioterapeutak, medikuak...) egindako atxikipenak ere sartuko dira eredu horietan.

APLIKATZEKOAK DIRA AITZINEKO BETEBEHARRAK, EGUNEAN EDO ASTEAN ORDU GUTXI BATZUETAN EMATEN DIREN ZERBITZUAK DIRELARIK? ETA ZER ONDORIO IZANEN LUKETE ORDAINKETA HORIEK GIZARTE SEGURANTZAREN AITZINEAN?

Erran bezala, entitatearekin lan harremana duen pertsona batek egintzat hartzen den edozein jardueratan egin behar dira kasuan kasuko atxikipena eta Gizarte Segurantzako kotizazioa, araubide orokorretik.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, 6/2017 [Lege Foralak aldatu egin du PFEZren](#) Lege Forala (4/2008 Foru Dekretua), sartuz puntu berri bat. 53. a, Puntu horretan biltzen dira zenbait aspektu lan errendimendurari dagokionez. Kirol zerbitzuetaz edo kulturaletaz.

Erregulazio berria kontuan izanten dira zenbait kirol aktibitate eta aktibitate kulturalak. Aktibitate hauek eginak dira asmorik gabeko entitateek eta jasotzen diren soldatak izanen dira, kirolariak, entrenatzaileak edo osasun zerbitzuak, arbitraiak edo antzekoak. Aktibitate guzti hauek loturik dauden kirolarekin.

a) **3.600 € , urtean, edo gutxiago jasotzen duten pertsonak.**

Kasu hauetan atxikipena ez da izanen eta ez aipatu behar eredu informatiboa.

b) **3.600€, urtean edo gehiago jasotzen duten pertsonak.**

Kasu hauetan erregimen orrokorrean sartuko dira eta kenkariaren betebarrak izanen dira. Eredu informatiboetan ere eman behar da informazioa.

Kasu honetan laneko etekinen atxikipena, PFEZn: %2a izanen da. Kontuan izan kantitate orokorra. 3.600 € kantitatea lortu arte ez bada atxikipena egin, **erregulazioa egin behar da** eta %2a egin beharko dugu. Kontuan hartuko dugu kantitate orokorra.

PFEZ-REN ONARPENAREN BETEBEHARRAK

Garrantzitsua da ohartaraztea ezen, zenbateko txikiko kasu horietarako, atxikipena egiteko betebeharetik salbuetsiko balira ere, ordaindutako errentak ez direla salbuetsiak bilakatzen PFEZri dagokionez; beraz, aitortu beharko dira laneko bertze errenta batzuekin edo bertze jatorri batzuk dituztenekin batera, eta horrek behartzen ditu PFEZgatik aitortpena egitera. Oraingo honetan, ez dute aitortpenik egin beharrik izanen, tributazioa banaka nahiz modu bereizian eginik, errentak iturri hauetatik baizik etortzen ez direlarik:

- a) Urtean 11.250 eurotik beheitiko lan etekin osoak.
- b) Kapital higigarriaren etekin osoak eta ondare-gehikuntzak, atxikipenaren edo konturako sarreraren mende daudenak, baldin eta bien artean, urtean, 1.600 eurotik beheitikoak badira.

Adibideak:

Kasua: Denboraldiaren 10 hilabeteetan hilabetean 300 euro biltzen dituen entrenatzailea. Aukerak:

- a) Ikasle bat da, edo langabe bat; beraz, ez du bertze inolako diru-sarrerarik bertze inongo jardueragatik → Ez litzaioke atxikipenik egin beharko eta ez luke PFEZgatik aitortpenik egin beharrik ere, horretarako ezarritako mugara ere ez litzatekeelakoz ailegatuko.
- b) Aipatuaz landa bertze diru-sarrera batzuk biltzen dituen pertsona, hala kirol entitate desberdinetatik nola enpresa batean lan egiteagatik edo bertzelako arrazoiengatik errentak jasotzen dituelakoz, eta horrek aitortpena egiteko betebeharra markatzen duen muga gaindiazten, → aitortpena egin beharko du PFEZgatik, klub horrek ordaindutako 3.000 euroak barne, tributazioari uztartutako etekin gisa, atxikipenik gabe ordaindu bazaizkio ere.

BERTZE BETEBEHAR BATZUK

NAFARROAKO KIROL ENTITATEEK AURKEZTU BEHAR DUTE HIRUGARREN PERTSONEKIN EGINDAKO ERAGIKETEI BURUZKO AITORPENAREN EREDUA?



BAI.

Kasu guztietan? Kasuan kasuko urte naturalean osotara 3.005,06 euro baino gehiago egiten duten eragiketak egin dituztelarik bertze pertsona edo entitate bati dagokionez.

[F-50 eredua](#) da, 347 ere erraten diotena. Urteko aitorten informatiboa, hornitzaile batengandik hartu edo bezero bati egin faktura guztien batura zehazten duena, betiere guztira 3.005,06 euro baino gehiago egiten badu.



182 EREDUAREN AURKEZPENA "Jasotako ekarpenen eta dohaintzen eta egindako erabileren informazio aitortpena"

Gerta daiteke kirol entitatea behartuta egotea 182 urteko informazio eredua aurkeztera, horretara behartzen duten inguruabarrak gertatuz gero.


Inguruabar horien artean, hauek dira gertagarrienak:

- Kirol entitateak dohaintzak hartu izana emailearen PFEZn edo sozietateen gaineko zergan kenkarirako eskubidea ematen dutenak.
- Kirol entitateak publizitateagatiko zenbatekoak hartu izana kirol jardueren babesletza kontratuen ondorioz, jarduera horiek Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko departamentuak interes sozialekoak deklaratu dituenean, orduan kenkaria sortzen dutelakoz ekarlearen sozietateen gaineko zergan.

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ)

JEZa udal zerga bat da, jarduera ekonomikoetan aritze hutsa zergapetzen duena.

NAFARROAKO KIROL ENTITATEAK LOTURIK DAUDE JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI EGIAZKI EGITEN DUTEN JARDUERAREN ARABERA?

 **BAI.** Bertzerik ez bada, enpresa edo lanbide jarduketa bat egiten duen orok alta egin beharko du jarduera ekonomikoek gainekeko zergan, dagokion udalean, udal eskumeneko zerga baita.

JEZaren tarifetako hiru epigrafe aipatzen dira konparaziorako:

- 968.3. Profesionalak ez diren klubek kirol ikuskizunak antolatzea.
- 967. Kirol instalazio eta eskolak eta kiroletan trebatzeko eskolak eta zerbitzuak.
- 673.2. Kafetegiak, ostatuak eta bertze.

Hala ere, kirol entitateek berreskuratzen ahalko dituzte sozietateen gainekeko zergaren aitortpenean ordaindutako JEZaren kuotak, baldin eta negozio zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino gutiago badute.



JOKOAREN GAINEKO TRIBUTUAK: ZOZKETAK



Salbuetsirik egonen dira zerga-oinarria (eskainitako txartelen zenbatekoaren batura osoa) ez bada 1.800 euro baino gehiago (joko antolatuko jarduera bakoitzetik).

Arau orokorra da baimena eskatu behar izatea Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuari.

KIROL BABESLETZA



Babes kontratuak: Kontratu hauetan babesleak laguntza ekonomiko bat ematen du babestuaren kirol jarduera egiteko, eta honek (kirol entitatea edo banakako kirolaria), ordainean, babeslearen publizitatean laguntzeko konpromisoa hartzen du (konparaziorako, izena edo logoa ezarrita jokatzeko edo entrenatzeko arropan).

BEZa: Halakoetan, ulertzen da kirol entitatea edo banakako kirolaria publizitate arloko zerbitzuak egiten ari dela, eta horiek BEZari lotuak daude eta ez salbuetsirik; beraz, nahitaezkoa da behar den faktura ematea zerbitzu horiek egiteagatik (BEZFLaren 109.1.3 artikulua). Jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea izanen dute, [BEZFLan](#) aurreikusitako baldintza eta betebeharren arabera. Hala ere, kontuan hartu beharra dago hainbanaketaren erregelak edo sektore berezien araubideak eragiten ahal diela kenkarirako eskubideari, kirol entitateak edo banakako kirolariak, publizitate arloko zerbitzuez gain, egiten dituenetan BEZFLaren 17.1.9 artikuluan xedatzen dena aplikaturik salbuetsitako bertzelako kirol zerbitzuak.

Entitate babesleak kontzeptu honengatik jasandako BEZan kenkaria egiten ahalko du, zergaren arau orokorrekin bat.

PFEZ: (Banakako babesletza kontratuen kasuan)

Kirolaria pertsona fisikoa denean, babesleak hari ordaindutako zenbatekoak etekin profesionaltzat hartuko dira, eta %15eko atxikipena izanen da aplikatzekoa.

Antolatzaile/babeslearekiko harremana lan arlokoa balitz, orduan kirolariak jasotzen dituen etekinak lan-etekinak izanen lirerateke, behar den atxikipenari lotuak (%15, izaera bereziko lan harremanetarako).